

Ordizian, **2012ko uztailearen 18an**, UDALBATZA elkartu da UDALETXEKO BILKURA-ARETOAN **OHIKO BILERA** egiteko. Bertan izan dira honako hauek:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: Igor Eguren Izagirre jauna.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Eduarne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	PNV taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	PNV taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	PNV taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	PNV taldea
Bittor Bolinaga Alzelai jauna	PNV taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :

IDAZKARIA:

Martin Iparragirre Mujika jn.

KONTUHARTZAILEA:

Ez da izan.

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra

BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK

EGUNEKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2012ko ekainak 28ean egindako Osoko Bilkurako akta onartzea.
.....**4.orr.**
2. BILDU taldeak aurkeztutako mozioa laikotasunaren aldekoa.
.....**5.orr.**
- 3.- EA-IUk aurkeztutako mozioa "Udalaren atxikimendua hirugarren errepublikaren aldeko udal sarea" izen burua duena.
.....**11.orr.**
- 4.- Nafarroa Hiribide 2 eta 4 zenbakiko jabetza pribatuko lursailaren lagapena.
.....**15.orr.**
- 5.- Egutera bideko Udalaren etxebizitza errentamendu bitartez zuzenean esleitzea.
.....**16.orr.**
- 6.- "Ostalaritza eta aisialdi" jarduerak kokatzeko Ordenantzaren aldaketa.
.....**18.orr.**
- 7.- Udaleko lanpostuen eginkizunei buruz 2011ko maiatzaren 16ko Udal Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren aurka Pilar Amenabar arkitektoak aurkeztutako berraztertze errekurtsoa.
.....**20.orr.**
- 8.- "H.E.A-14-San Juan" eremuan babes Ofizialeko 27 etxebizitza eraikitze proiektuari buruz, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Obra Publiko, eta Garraio departamentuarekin sinatzeko hitzarmena.
.....**21.orr.**
- 9.- A.H.E.A.- GARBIGUNE. Hiri Antolaketako arauen aldeketarako aurrerapena.
.....**22.orr.**

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

- .- Ipar-Hegoa kooperazio programetan parte hartzeagatik Ordiziako gazte bateri diru-laguntza ematea.
- .- Ipar-Hegoa kooperazio programetan parte hartzeagatik Algamar elkarteari diru-laguntza ematea.
.....**24.orr.**

GORABEHERAK

GALDE-ESKEAK

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19.30ak.

AMAIERA ORDUA: 20.50ak.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2012ko ekainaren 28an egindako ohiko bileraren akta onartzea.

Proposamena

2012ko ekainaren 28an ohiko deialdian egindako bileraren akta-zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Akats hauek daudela somatu da:

Dubreuil jn

3. puntuari dagokionez, adierazi du bere interbentzioa jasota dagoen bezala, esanahia galdetzen duela, eta honako hau dela berak adierazitakoa:

Nahiz eta uste mozioak ez duela zentzurik, zeren eta ziurtasun osoa du eskatzen diren pauso guztiak ematen ari direla, adierazi du mozioaren alde bozkatuko duela, eta jarraitu du esanez ez zela aurkeztu beharrik izango, Ordiziako PSE-EEK Batzorde batean aurkeztutako proposamena, eta Eusko Jaurlaritzak Eskualdeko Enplegu Planaren deialdia argitaratu zen egun berean idatziz erregistratu zuen idatzia kontuan izan balitz (dagokion aktan jasota dago); herritik programaren jarraipen zuzena egiteko lan talde bat osatzeko proposamena egin du, eta eskatu du aurreko legegaldian diseinatutako Krisiaren aurkako Tokiko Akzio Plana berriro martxan jartzea, beste bilera batzuetan esandakoarekin bat etorritik.

Santamaría jn

6. puntuari dagokionez, adierazi du bozketaren emaitza gaizki dagoela, zeren eta EAJ/PNVko zinegotzi denek proposamenaren aurka bozkatu zuten, eta bozketaren emaitza zuzentzeko eskatzen du.

Maiza and

2. puntuari dagokionez, adierazi du euskera bertsioko aktan "erreuskailua" hitza erabiltzen bada ere puntu osoan, hitza zuzena "errauskailua" dela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0.

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du.

Alkate jn

Hitza Maiza andreari eman dio eta honek laikotasunaren aldeko mozioko erabaki-proposamenak irakurri ditu.

2.- Bildu taldeak aurkeztutako mozia laikotasunaren aldekoa.

Proposamena

Botere publikoaren eta Elizaren arteko harremana ez da izan beti berdin Euskal Herriaren historian zehar. Urrutira joan gabe, XX. mendean bertan, erakundeen eta Elizaren arteko hartu-emanek pasarte desberdinak izan zituzten.

Dudarik gabe, frankismoaren bukaerak ireki zuen laikotasunaren eztabaida. Laikotasuna, hain zuzen ere, honelaxe ulertuta: errespetua sinesmen eta etika pluraltasunari; bereizketa elizen eta Estatuaren artean; eta ez inposatzea inori norberaren arau moralak.

lido horretatik, laikotasuna ulertu beharko genuke demokraziatik bereizi ezin den printzipio bat bezala. Izan ere, sinesmen erlijiosoak ez dira dogmak, inori inposatu behar zaizkionak, ezta lege bihurtu beharrekoak ere. Hori horrela, Estatu laiko batean lekua dute sinesmen erlijiosoek, sinestunen eskubide bezala; baina ez inori inposatzeko betebeharrak gisara. Beraz, erlijioaren antolaera sekularizatua eta tolerantzia beharrezkoa da, Modu horretan bizikidetzak hobe lortu nahi da, sinesbide desberdinen jarduerak erregularizatuz eta herritar guztien berdintasuna ziurtatuz.

Beraz, hau da kontua: oreka bilatzea herritar guztiek —sinestunek eta sinesgabeek duten berdintasun eskubidearen eta askatasun erlijiosoaren artean. Are gehiago bizi garen garai hauetan. Izan ere, euskal gizarteak sekularizatu egin da eta ideia erlijiosoak, ez erlijiosoak eta bestelako aukerak ugartu egin dira.

Arrazoi horiengatik, erakundeek eta botere publikoak izan behar dute oso errespetutsuak berdintasun printzipioarekin eta saihestu egin behar dituzte, batetik, erlijio jakin baten mesederako besterik izango ez liratekeen ekintzak edo jarduerak, eta, bestetik, sinestun ez direnek diskriminaziozko tratua jasotzea.

Hori esanda, eta XXI. mendeko lehenbiziko hamarkada iragan delarik, uste dugu pauso gehiago eman behar direla, aipatutako printzipioak errespetatzeko bidean. Gauzak horrela, iruditzen zaigu oraindik ere botere publikoen jarduerak batzuek urratzen dituztela administrazioaren berdintasun eta laikotasun printzipioak.

Bide horretatik, administrazioak beharrezkoak diren baliabideak jarri behar ditu, bermatzeko sinestunen eta sinesgabeen berdintasuna. Ildo horretatik, udaletxeetan egiten diren ezkontza zibilen onarpenari gehitu behar zaio hileta zibilak egiteko aukera; horretarako, beharrezkoak diren giza baliabideak eta materialak gaitu beharko dira, hildakoa bere senide eta adiskideek agurtu dezaten baldintza beretan.

Printzipio hauek demokraziaren kontzeptuari berari datzekio, eta agertu behar dute, era berean, gure herrian askotan oso kutsu historiko eta tradizionalarekin ospatzen diren kultur ekitaldi eta jaietan. Hortaz, administrazioaren berdintasun printzipioa eta laiktasuna errespetatzeko lagungarri izan behar du, -beti ere, pluraltasuna eta norberaren sinesmenak errespetatuz-, denok integartzeko eta parte hartzeko aipameneko kultur eta/edo jai ekitaldietan, eta, ondorioz, haiek sendotzeko.

Hori guztia aintzat hartuz, Ordiziako Udalbatzak:

ERABAKI DU:

LEHENA.- Ordiziako Udalak konpromisoa hartzen du errespetatzeko laiktasun printzipioa administrazioaren eremu guztietan; eta bidezkoak diren neurriak hartuko ditu bermatzeko herritar guztien, sinestunen nahiz sinesgabeen, berdintasun printzipioaren erabateko errespetua.

BIGARRENA.- Ordiziako Udalak konpromisoa hartzen du zaintzeko sinestunen eta sinesgabeen berdintasuna, bermatuz ezkontza eta hileta zibilen ekitaldiak, eta ospakizun horietarako beharrezkoak diren instalazioak eta baliabideak jarritz.

HIRUGARRENA.- Aipatutako printzipioak betetzeko, Ordiziako Udalak, instituzio bezala, izaera zibileko ekitaldiak eta/edo ospakizunak besterik ez ditu sustatuko eta haietan besterik ez du parte hartuko, bermatzeko, batetik, sinesbide guztien berdintasuna eta, bestetik, sinestun eta sinesgabeen arteko berdintasuna.

LAUGARRENA.- Ondorioz, udal zinegotziek beren ordezkaritza instituzionalaz baliatuko dira, udal zinegotzi bezala identifikatuko lituzkeen jokabide edo ikurren bidez, Udalak, erakunde bezala, parte hartzea erabakitzen duen ekitaldi eta/edo ospakizunetan bakarrik.

BOSGARRENA.- Ordizako udalak herrian errota dauden sinesmen erlijioso guztiei errespetuzko jarrera erakusten die eta horien ordezkariekin elkarlanerako prestatutasuna agertzen du, betiere, bi aldeen interesekoak izan daitezkeen esparruetan.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Santamaria jn

Esan du bere taldeak mozioaren aurka bozkatuko duela, estatu laiko batean bizi garela, eta mozio honekin arazo bat sortzen dela arazorik ez zegoen gai batean, inorekin kontatu gabe prestatu dela mozioa, eta jaiak datozela eta, bertako tradiziozko erlijio ekitaldietan, orain arte egin den bezala nahi

duenak parte hartu behar duela eta nahi duenak ez, askatasun osoarekin. Mozioa “inposaketa” dela pentsatzen du eta eta ez dakiela zer intentzio dagoen atzetik, prestatzeko ez dela parrokiaren iritzia kontuan izan, eta inongo eztabaidarik izan gabe hartu dela, eta Santa Ana jaietako prozesioa, eta abar tradizioan oinarrituta daudela, eta Udalak errespetatu egin behar dituela, azkenik mozioa erretiratzeko eskatuz.

Alkate jn

Hitza hartu, eta adierazi du mozioarekin ez dela inongo arazorik sortuko, Udala herritarren zerbitzura dagoela, eta gizartea garatzen doala eta sinesmendun eta sinesmendun ez direnak daudela bertan, eta printzipio demokratikoz gauzak aldatzen joan behar direla, naturaltasunez eta errespetu osoz, eta ez inolaz inposizioa rehabilita.

Bukatu du esanez Udala zerbitzu bat emateko dagoela, eta mozioarekin berdintasuna praktikara eraman nahi dela, eta hori dela duen intentzio bakarra.

Bolinaga jn

Hartu du hitza, eta adierazi du bere ikuspuntutik berdintasuna praktikara eramateko, bidea ez dela parte ez hartzea, baizik eta kontzeptu bezala horrelako ekitaldi guztietan parte hartu beharko litzatekeela, ez bakarrik katoliko tradizioetan, baita herrian dauden beste erlijiotako ekitaldietan ere.

Alkate jn

Erantzun dio esanez erlijio guztiekeriko jarrera berdina izan behar dela, eta horietako edozein gonbidapen aurrean, berak ez duela inongo arazorik izango joateko, ez instituzio bezala baizik eta alkate bezala.

Maiza and

Adierazi du gai honetaz parrokoarekin egon direla, eta honek oso jarrera baikorra agertu zuela, eta geratu zirela irailetik aurrera mahai bat osatu, eta bertan baita Ordiziako esparruan dauden beste erlijioak ere parte hartzea, gai honi buruz eztabaidatzeko, errespeto esparruetara iristeko eta harremanak nola izan behar diren finkatzeko. Bestalde adierazi du parrokoak onartu zuela ere eliza katolikoko zenbait sinbologi kadukoak direla, eta bukatu du esanez mozio hau abiapuntu gisa hartu behar dela.

Alkate jn

Bere aldetik adierazi du, eliza eragile bat izanik, ez dela maila horretan harremanik izan, eta ikertu egin beharko litzatekeela zentzu horretan nola sendotu harremanak.

Santamaría jn

Gogorarazi du berriro estatu laiko batean bizi garela, eta jaietako ekitaldiak urtean behin izaten direla, eta mozioa eztabaidaren ondoren ekarri behar zela.

Dubreuil in

Iñakik adierazi du:

Bilduk dio, onartzeko aurkeztu duen testuan, laikotasuna, uste eta etiken aniztasunari errespetua izatea dela, eliz(en) eta Estatuaren arteko banaketa, eta gainerakoei norberaren arau moralak ezartzeari uko egitea.

Nire aldetik, eta nire izenean diot, ez dut uste Udaltzako uste eta etiken aniztasunaren aldeko errespetua zalantzan jartzen duenik Santa Anaren prozesioan parte hartuta, Ordiziako zaindari den eta Ordiziako jaiak bere ohorez ospatzen diren Santa Anaren prozesioan. Horrekin batera, ez dut uste elizen eta Estatuaren arteko banaketa zalantzan jartzen denik horrekin, eta Elizak Udal honi edo alderantziz arau moralak ezartzen dizkionik.

Ziur nago beste erlijio sinesmenek ez dutela zalantzan jartzen Udalak dien errespetua; eta Bilduk ere horren ziurtasuna duela uste dut, eta hala ez bada, hori adieraztea gustatuko litzaidake. Ez dut uste Udalaren "boterea" Parrokia-Elizaren botereak baldintzatuta edo gutxiagotuta sentitzen denik, edo alderantziz. Bestalde, ez dut uste inposaketa denik Udaltzako San Anaren omenezko prozesioan parte hartzea. Orain arte, nahi izan ez duenak, ez du parte hartu bertan. Inork ez dio prozesioan parte hartzeko inposaketarik ipini Udalari. Zinegotzi lanetan nabilen urteotan behintzat ez da horrelakorik gertatu, eta badira urte dezente. Nahi izan duenak parte hartu du, eta nahi izan ez duenak, ez. Herri honen tradizioan sartzen da prozesiora joatea. Hasieran "derrigorrezkoa" edo "inposatua" izan zitekeen, garai hartan uste hori zegoelako edo, horrela jokatzeko zutelako. Gaur egun, historiaren ikuspegia kontuan izanik, badakigu, sinestun eta fededunentzako, eta baita sinestun ez direnentzako ere, esanahia aldatu egin dela, gizarte bera ere aldatu egin baita. Prozesioak ez du orain dela 50 urte zuen esanahi bera, adibide gisa jartzearen.

Udaltzako kideek prozesioan parte hartuz gero ez diete diskriminaziozko tratuerik ematen sinestun ez diren beste herritarrei. Udal honetan hori erakusten duten egoera eta inguruabar ugari aipa ditzakegu: Adibidez, Udalean duela urte dezente izateko bikoteen erregistroa osatzen da, edo ezkontza zibilak ospatzen dira, edo sinestunak ez diren pertsona, talde edo elkarten omenaldietan erakunde mailako konpromisoak betetzen dira. Erlijioarekin edo sinesmenarekin zerikusirik ez duten urteurren, ospakizun historiko eta abarretan parte hartzen du Udalak... hau da, gizarte zibilarekin lotura handia duten jardueretan. Edo erlijio batzuek mugatzen dituzten eskubideak kontuan izanda, kaltetzen dituzten elkarten aldeko mozioak, adierazpenak etab. onartzen ditu Udalak. Zeinek pentsatuko du udal ordezkariak Santa Ana prozesiora joateak sinestun ez direnak diskriminatuko dituela? Beharbada batzuei ez zaie gehiegi gustatuko, edo batzuei batere ez, Udalarekin bat egiten ez duen talde batek antolatutako ekitaldian, Udalak Udal moduan parte hartzea. Baina, diskriminatzailea da? Udaltzako Santa Anaren prozesiora joateak ez du Eliza Katolikoaren sinesmenarekin bat egiten duenik esan nahi, ezta bere agindu eta arauarekin bat egiten duenik ere.

Laikotasuna marko egokia da, kontzientzia-askatasuna bermatzen du, eta ideia, sinesmen, eta uste askatasuna duten eta maila sozial nahiz pertsonal desberdineko pertsonak sartzen dira bertan. Hori askatasuna eta berdintasuna lortzeko ezinbesteko baldintza da. Ez dut uste Udaltzako Santa Ana prozesioan parte hartzen badu kontzientzia-askatasunaren marko hori apurtzen duenik.

Beste alde batetik, laikotasuna integratzeko era bat da. Eta ez dut uste prozesiora joanda integrazioaren gurpilari trabak jartzen zaizkionik. Gehiago esango nuke: prozesioan parte hartzea, edota beste erlijio ospakizun batzuetan parte hartzea interesgarria eta garrantzitsua izan daiteke, integrazio alorrean.

Gutako zenbaitentzat fundamentalismo monoteistek edo erlijiozkoek herritarren arteko mugak ezartzen dituzte. Laikotasuna integratzeko eremua da. Laikotasunik gabe, pentsa dezakegu, herritarren zenbait eskubide murrizten dela, eta gainera batzuk delitu zibiltzat har daitezkeela, esaterako, ondorengo libertateak: haurdunaldiaren borondatezko etenaldia, sexu bereko pertsonen arteko ezkontza... eta delitu izateari utziko liokete emakumearen aurkako bortizkeriak, ablazioak edo sexu arrazoiengatik sortutako diskriminazioak. Laikotasunik gabe, ezin dira kontzientzia libre eta kritikorik gabeko jarrerak gelditu, eta ezin dira hiritar-bertuteak landu.

Laikotasunak kultura, ideia eta erlijioen arteko elkarbizitza bermatzen du, mendekotasunik gabe, sinesmen nagusitasunik gabe, inposaketarik gabe, herritarren borondatea baldintzatu gabe, Zuzenbide Estatu Sozial eta Demokratikoko Erakundeen ekintza politikoa erlijio hierarkia edo sinesmen baten menpean jarri gabe. Laikotasunak herritarren eskubideen garapena bermatzen du, Estatu Demokratikoak eta Legeak ez baitute aurretik ezarritako maila goreneko legeen esanik betetzen, borondate eta subiranotasun bakarra herriarena baita. Eta ez dut uste, nire iritzi apalean, kulturen, ideien edo erlijioen arteko elkarbizitzari kalte egiten zaionik Santa Anako prozesioan parte hartuta, edo Udalaren jarduera politikoa sinesmen katolikoaren edo hierarkia katolikoaren menpean izatea defendatzen denik. Ez dut uste Udalbatzak Santa Anako prozesioan parte hartuta herritarren eskubideei kalte egiten zaienik nahiz eta Espainiako Elizak zenbaitetan kalte egin nire ustez. Horiek horrela, kritika hori Udalak berak egin izan du genero berdintasunaz ari garenean. Parrokiako Elizak ez du sekula eraginik izan Udal honek gai hauen inguruan hartutako erabakietan. Prozesioan parte hartzeak ez dut uste ezer berririk ekartzen duenik zentzu honetan.

Gai honek hausnarketa, kontsulta eta eztabaida behar ditu, hori argi dago. Bilduk, pasa den urtean, garai honetan, gaiari buruzko hasierako proposamen bat aurkeztu zuen baina era sakonagoan hausnartzeko, utzi egin zuen. Ados geunden orduan. Orain, herriko jaien bezperan, eztabaida zabaldu du. Honakoa galdetzen diot nire buruari: ez al zaie iruditzen denbora gutxi dagoela horrelako gaia aztertzeko, prozesio batean parte hartzetik harantzago doan gaia izanda? Ez al zaie iruditzen oraingoa eztabaida "itxia" denik gaia zuzenean osoko bilkuran aztertzen bada alderdi politikoen artean?

Udalbatza honetako inork hitz egin al du honetaz komunitate katolikoko inorekin? Badakigu komunitate katolikoak zein iritzi duen? Ez al dira bada Ordiziako herritar, beraien iritziak kontuan hartzeko? Ez al dute herriko talde garrantzitsu bat osatzen?

Beharbada, haiekin hitz eginda, konturatuko gara gauza askorekin bat egiten dugula. Agian, demokrazia eta laikotasuna elkarrekin doazela pentsatzen dugu denok. Santa Anako prozesioari buruz, beharbada, guztiok pentsatzen dugu ez dituela herriak berak antolatzen ekitaldi hauek, baizik eta "herriaren zati batek". Beraz, laikotasuna errespetatu beharko bagenu, Udala ez litzateke joaten den bezala joango, horrek "toki berezia" ematen baitie zinegotziei. Edo agian bereizketa hori onartuko lukete komunitate katolikoak Udala gonbidatuko balu... komunitate katolikoaren hitz egin al du inork?

Ordiziako komunitate katolikoak ere laikotasun horretan bizi nahi duela uste dut, ziur nago. Ziur nago komunitate katolikoak erlijio katolikoari gizarte honetan dagokion tokia betetzea nahi duela, eta beharbada (soilik esatera ausartzen naiz) batzuek erakunde hierarkiko izateari utzi nahi diote,

kaltegarria dela uste dutelako laikotasunean bizitzen ohitu direnentzat. Mozioa bera egokia izan daiteke katolikoentzat, azalpen konstruktiboa izan balu komunitateko ordezkariekin.

Eta Udal honentzako ere egokia izan zitekeen. Laikoak bagara, azken hariraino gara laiko: San Joanen erreferentzia ezabatuko dugu egun horretan, San Pedorena, zergatik ospatzen dugu? Zergatik ez dugu Santa Ana kofradia kentzen?... edo santanazaleen dantza? Kendu ditzagun Santu, Aita Santu eta fraideen erreferentziak gure kaleetatik... Eta horrela hasiz gero, gure historiatik kendu ditzagun.... Eztabaida zabal dezagun... eztabaida osoa.... Eta guztientzako. Baina, nola baztertu, alboratu edo gutxietsi gure kulturaren egon den erlijio bat, nahiz eta batzuk alboratzen saiatu? Elkarrekin bizi beharko dugu. Eta elkarbizitza horrek, besteak beste, trukea, harremana barneratzen ditu. Eta kasurik onenean lankidetzeta, kooperazioa. Espazioa, denbora trukitzea esan nahi du... zein kalte egiten dio laikotasunari udalbatzak tradiziozko ekitaldi batean parte hartzeak edo bertan parte ez hartzeak? Desberdinen arteko baina aldi berean berdinen arteko onarpen-ekintza bat. Nahiz eta urruntzen gaituzten gauza asko egon, gerturatzeko gaituzten beste gauza asko daude.

Sinesgabea naizela kontuan izanda, esan behar dut ni ez nauela mintzen Udalbatzak Santa Ana prozesioan parte hartzeak. Ez dut nirekiko, sinesdunekiko edo sinesgabeekiko errespetu falta bezala ikusten. Oraingoan Ordiziako zaindaria da, eta gure jaiek haren izena hartzen dute.

Beste kontu bat da Elizarekin izan behar dugun harremana. Elkarrekiko errespetuan, lankidetzan eta elkarlanean oinarritutako harremana, baina gure arteko aldeak kontuan izanda, eta ikuspegi kritikoa izanda, Udalak orain arte egin izan duen moduan genero berdintasunari buruzko, sexu bereko pertsonen ezkontzari buruzko eta errespetu eta berdintasunaren aldeko proposamen eta mozioak onartuta. Eta elizak egiten duen moduan gure jarrerak ulertzen ez dituenean.

Ez naiz preseski elizkoia, baina gizadiak ematen duena ikusita... Ez nau harritzen askok erlijio katolikoan bilatzea babesa eta ereduak. Eta ikusitakoa ikusita ez zait aukera txarrena iruditzen.

Gure aldetik, eta gure jarrera zehazteko, duela urtebete Bilduk egin zuen moduan, eztabaida publiko bat martxan jartzea proposatzen dugu denbora nahikoarekin, Udalak erakunde publiko moduan udalerrian dauden erakunde erlijiosoekin izan behar duen harremanaz hitz egiteko. Beste aldetik, prozesioan udal kargu politikoak egotea defendatzen dugu, baina inor horretara behartu gabe. Proposatzen dugun eztabaidan ondorioak ateratzen ez ditugun bitartean, nire ustez Udala erakunde gisa ez dago bertan erlijiozko arrazoiengatik, baizik eta prozesioak denborarekin batera hartu duen tradiziozko izaeragatik eta izaera sekularragatik. Prozesioa eta tankerako ekitaldiak (Santanazaleen aurrekua, San Juan sua, kaleen izendegia etab), herrian txertatuta daude. Gure historiaren eta tradizioen zati dira. Aldatzerik ez dagoen historia da, eta norbaitek tradizio hauek aldatu nahiko balitu, zuhurtasunez eta apaltasunez jokatu beharko luke eta ez aldatu Erakunde honetan gehiengoa duelako.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7,)

Kontrako botoak: 6 (EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE)1)

Abstentzioa: 0.

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 3. puntuaren berri eman du:

Alkate in

Udal Osoko Bilkuran ikusleen artean dagoen Ezker Anitzeko ordezkariak, Vazquez Andrea, eskatu dio mozioa irakurtzeko.

3.- Ezker Anitza/IUk aurkeztutako mozioa “Udalaren atxikimendua hirugarren errepublikaren aldeko udal sarera” izenburua duena

Proposamena

Mota guztietako errepublikaoek, II. Errepublikaren legatu social, cultural eta emantzipatzailearen oinordekoak, Justizia, Askatasuna, Berdintasuna eta Senidetasuna idealekin konprometituak, gaurko Konstituzioak Francoren diktaturaren zuzeneko oinordekoa den monarkia egorea espainiarraren hiritarrei inposatzen dien modua gure arbuizatzeko irmoa adierazten dugu. Halaber, ezin dezakegu onar Estatuaren forma egokiago aukeratzeko posibilitatea hiritarrei ukatzen denik.

Gaurko Parlamentuko Monarkiak ez ditu babesten ditugun idealak jasotzen. Gaurko Estatu espainiarrerako erregimen errepublikanoa izango litzateke eskubideetako eta askatasun demokratikoetako defentsarako mako onena, eta Estatu osatzen duen herri desberdinen autodeterminazioa eta autogobernua ziurtatzeko ezinbesteko trenza, baita bide bat, ekonomía kapitalistak eskubide sozialen garapen eraginkorrari inposatzen dizkion mugak gainditzeko.

Erreibindikazio hauek definitzen ditugu hurrengo ideia indarretan:

- Askatasunengatik eta demokrazia parte-hartzailearen alde.
- Lana eta soldata duin, egonkor eta eskubide osoen alde.
- Guztiontzako etxebizitza eskuragarriekin eta guztientako beste política ekonomiko baten alde, Espekulazioaren eta ustelkeriaren kontra.
- Osasun zerbitzu publiko eta kalitatezkoen alde, eta Hezkuntza publiko, laico, berdintzaile eta eraginkorraren alde.
- Internazionalismo solidarioagatik, gerraren kontra eta bakearen alde.
- Herrien autodeterminazioaren alde
- Guztiontzako berdintasunaren alde.
- III. Errepublikaren lorpena bultzatzeko, III Errepublikaren aldeko udal-sarea osatu da, Estatu osoaren 30 udal baino gehiagotara elkartzen duena.

Ezker Anitza-IU-ren taldetik osoko bilkkuraren begirunerako hurrengo akordioa proposatzen dugu:

AURRENA.- Gaurko Estatu modeloa ahituta jotzea, eta Konstituzioaren erreforma eskatzeko hiritarretarako, eta referendumeko deialdirako deia egitea, non hiritarrak boto demokratikoa, Estatu Espainiarerako nahiago duten EStatu forma, erabiliko dute.

BIGARRENA: III. Errepublikaren aldeko Udal Sarera Udalaren atxikimendua aldarritkatzea. Errepublikaranzko prozesu eratzailera bultzatzeko, Konstituzio Espainiarrak 169 rako 166ko bere artikuluetan aurrikusten dituen mecanismo demokratiko eta baketsu guztiak erabiliz.

HIRUGARRENA.- Akordio hauen berri Eusko Legebiltzarrari eta Gorte Nagusiei ematea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn

Adierazi du mozioaren hausnarketa egin duela eta bere taldeak Euskal Herriko esparrua aldarrikatzen duenez, mozioa bere osotasunean ezin duela onartu, konkretuki bigarren puntua onartezina ikusten du; nahiz eta hori horrela izan mozioari aterabide emateko nahia azaldu du, eta horregatik mozioaren erabakiak puntuz-puntu bozkatzea proposatu du.

Santamaria jn

Prest agertu da kontsentsoa lortzeko, eta Vazquez andreari galdetu dio ea posible den mozioaren edukia aldatzea.

Vazquez and

Erantzun dio ezetz

Santamaria jn

Horren aurrean, eta nahiz eta mozioaren aspektu batzuetan ados egon, aldaketarik egiteko aukerarik ez dagoenez, esan du bere taldeak mozioaren aurka bozkatuko duela.

Dubreuil jn

Adierazi du nahiz eta errerepublikaren aldekoa izan, ez datorrela bat mozioarekin, oraingo eredu agortuta dagoela esaten duenean, berak ez daukala garbi hori horrela den, eta gainera mozioaren edukiarekin beste hainbat aspektuetan ere ez dagoela ados.

Alkate jn

Adierazi du nahiz eta Santamaria jaunak egindako planteamenduarekin guztiz ados egon, mozioari aterabidea eman nahi diola,, eta berriro puntuz-puntu bozkatzeko proposamena jartzen du mahai gainean.

Santamaria in

Erantzun dio, mozioa bere osotasunean uzteko planteamendua dagoenean, ez zaiola iruditzen puntuz-puntu bozkatu behar denik.

Dubreuil in

Bere aldetik ere, puntuz-puntu bozkatzeko planteamenduaren aurka dagoela adierazi du.

Alkatea mozioa puntuz-puntu bozketatzeko proposamena egin du eta hona hemen emaitza:

Mozioa puntuz-puntu bozkatzeko proposamena:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 6 (EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, proposamena puztuz-puntu bozketatzeari ekin dio.

Mozioaren Aurreneko puntuaren bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 6 (EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.

Mozioaren Bigarren puntuaren bozketa

Aldeko botoak: 1 (PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak: 5 (EAJ/PNV 5)

Abstentzia: 7 (BILDU 7)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena ez onartutzat eman du.

Mozioaren Hirugarren puntuaren bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak: 5 (EAJ/PNV 5,)

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.

Beraz, onartutako proposamena ondoren jasotzen den eran geratu da:

UDALAREN ATXIKIMENDUA HIRUGARREN ERREPUBLIKAREN ALDEKO UDAL SARERA

Mota guztietako errepublikaoek, II. Errepublikaren legatu social, cultural eta emantzipatzailearen oinordekoak, Justizia, Askatasuna, Berdintasuna eta Senidetasuna idealekin konprometituak, gaurko Konstituzioak Francoren diktaduraren zuzeneko oinordekoa den monarkia egorea espainiarraren hiritarrei inposatzen dien modua gure arbuiatze irmoa adierazten dugu. Halaber, ezin dezakegu onar Estatuaren forma egokiago aukeratzeko posibilitatea hiritarrei ukatzen denik.

Gaurko Parlamentuko Monarkiak ez ditu babesten ditugun idealak jasotzen. Gaurko Estatu espainiarrerako erregimen errepublikanoa izango litzateke eskubideetako eta askatasun demokratikoetako defentsarako mako onena, eta Estatua osastzen duelen herri desberdinen autodeterminazioa eta autogobernua ziurtazeko ezinbesteko trenza, baita bide bat, economía kapitalistak eskubide sozialen garapen eraginkorrari inposatzen dizkion mugak gainditzeko.

Erreibindikazio hauek definitzen ditugu hurrengo ideia indarretan:

- Askatasunengatik eta demokrazia parte-hartzailearen alde.
- Lana eta soldata duin, egonkor eta eskubide osoen alde.
- Guztiontzako etxebizitza eskuragarriekin eta guztientako beste política ekonomiko baten alde, Espekulazioaren eta ustelkeriaren kontra.
- Osasun zerbitzu publiko eta kalitatezkoen alde, eta Hezkuntza publiko, laico, berdintzaile eta eraginkorraren alde.
- Internazionalismo solidarioagatik, gerraren kontra eta bakearen alde.
- Herrien autodeterminazioaren alde
- Guztiontzako berdintasunaren alde.
- III. Errepublikaren lorpena bultzatzeko, III Errepublikaren aldeko udal-sarea osatu da, Estatu osoaren 30 udal baino gehiagotara elkartzen duena.

Ezker Anitza-IU-ren taldetik osoko bilkuraren begirunerako hurrengo akordioa proposatzen dugu:

AURRENA.- Gaurko Estatu modeloa ahituta jotzea, eta Konstituzioaren arreforma eskatzeko hiritarretarako, eta referendumeko deialdirako deia egitea, non hiritarrak boto demokratikoa, Estatu Espainiarrerako nahiago duten EStatu forma, erabiliko dute.

BIGARRENA.- Akordio hauen berri Eusko Legebiltzarrari eta Gorte Nagusiei ematea.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- Nafarroa Hiribide 2,3 eta 4 zenbakiko jabetza pribatuko lursailaren lagapena.

Proposamena

2011ko urriaren 27an, Nafarroa etorbidea 2ko Erkidegoan egindako Ezohiko Batzordearen berri ematen da. Batzorde horretan eta Erkidegoko administradoreak Udalean aurkeztutako aktaren bitartez, bertaratutako bizilagunek jabetzaren % 77,25 ordezkaturik aho batez onartu zuten Ordiziako Udalari ibaiaren paralelo eta Erkidegoarentzat pribatua izango zen lur-zerrenda doan lagatzea, 240,65 m²-ko azalerakoa, atxikitzen den planoarekin bat etorriz, bertan bidegorria eraikitzeko.

2012ko uztailaren 11ko Osoko Bilkurako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako hau proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

- 1.- Nafarroa Etorbidea 2 erkidegoko jabetza pribatuko lur-zerrenda, 240,65 m²-koa doan laga dadin onartzea, Oria ibaiaren paralelo, bertan bidegorri bat eraikitzeko.**
- 2.- Eskritura publikoak formalizatzeko prozedura eta Erregistroko gastuak, edo lagapenak lekarkeen beste edozein gastu Ordiziako Udalak ordainduko ditu.**
- 3.- Alkateari ahalmena eman behar diren agiri guztiak sinatzeko.**

.....

2009ko martxoaren 12an, Nafarroa etorbidea 3ko Erkidegoan egindako Ezohiko Batzordea eta 2012ko martxoaren 16an Nafarroa etorbidea 4ko Erkidegoan egindako urteroko ohiko batzordearen berri ematen da.

Batzorde hauretan eta Erkidegoko administradoreak Udalean aurkeztutako akten bitartez, Erkidego bakoitzean bertaratutako bizilagunek aho batez onartu zuten Ordiziako Udalari ibaiaren paralelo eta Erkidegoarentzat pribatua izango zen lur-zerrenda bana doan lagatzea, 256,90 m²-ko azalerakoa Nafarroa etorbidea 3ko kasuan eta 284,36m²koa Nafarroa etorbidea 4koan, atxikitzen den planoarekin bat etorriz, bertan bidegorria eraikitzeko.

Osoko Bilkurak onartzearen alde, honako hau proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

- 1.- Nafarroa Etorbidea 3 eta 4 erkidegoko jabetza pribatuko lur-zerrenda bana, 256,90m²-koa eta 284,36m²-koa, hurrenez hurren, doan laga dadin onartzea, Oria ibaiaren paralelo, bertan bidegorri bat eraikitzeko.**
- 2.- Eskritura publikoak formalizatzeko prozedura eta Erregistroko gastuak, edo lagapenak lekarkeen beste edozein gastu Ordiziako Udalak ordainduko ditu.**
- 3.- Alkateari ahalmena eman behar diren agiri guztiak sinatzeko.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Asenjo in

Gogoratu du 2012ko uztailaren 11ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzorderako dokumentazio osoa Nafarroa Hiribide 2koa bakarrik bazegoen bazen ere, komentatu zela Pleno honetarako 3 eta 4koak ere izatea espero zela. Jarraitu du esanez Udal Osoko Bilkura honetako deialdia egin aurretik Nafarroa Hiribide 4ko dokumentazio osoa aurkeztu zela, eta gaur bertan Nafarroa Hiribide 3ko dokumentazio osoa aurkeztu dela, eta jostioekin jarraitzeko asmoa azaldu du lagapenak lortu eta prozesu osoa bukatzeko.

Santamaria in

Informazio zehatzagoa eskatu du.

Asenjo in

Lagapenen egoera azaldu du:

- Dagoeneko dauden lagapenak: Plaza Intxausti: 4,5 eta Nafarroa Hiribide: 2,3,4,6.
- Pendiente dauden lagapenak: Nafarroa Hiribidea: 1,5,7,8,9,10

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.- Egutera bideko Udalaren etxebizitza errentamendu bitartez zuzenean esleitzea.

Proposamena

EGUTERA BIDEA 14an (Ur zentrala) kokatutako alokairurako etxebizitza, zuzenean esleitzeko, izapidetutako espedientearen berri ematen da. Emilio Alvarez Maiz-ek bertan bizi da.

Honako hau ikusita:

- 2010eko uztailako hitzarmena, Ordiziako Udalaren eta orduko ur arduradunaren artean, Ur Partzuergoarekin izenpetutako hitzarmenetik eratorritako ondorioekin lotuta.
- 2010eko uztailako alokairu kontraturako proposamena, orduan Udaleko Administrazio Orokorreko Teknikariak egindakoa,
- Langileria Batzordeak aurkeztutako kontratuaren kontrako proposamena.
- Denbora tarte horretan, bi aldeen artean izandako negoziazioak, espedientearen dagoen kontratuko klausuletan jasotzen direnak.
- Administrazio Orokorreko Teknikariari eta Idazkariari dagozkion txosten juridikoak,

Osoko Bilkurarako Gaien Batzordera eramango da honako honen onarpena:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- EGUTERA BIDEA, 14an kokatutako etxebizitza esleitzea, esleipen zuzeneko prozedura bidez, Emilio Fco. Alvarez Maiz jaunari, 2010eko uztailaren 23an sinatutako Hitzarmenaren Lehen Akordioaren arabera.

2.- Alokairu kontratuaren klausulak onartzea, Ordiziako Udalaren, etxebizitzaren jabea, eta Emilio Fco. Alvarez Maiz-en arteko harremanak arautuko dituen, atxikita idatziz doan kontratuan bildutakoak.

3.- Alkate jaunari eskumena eman akordio hori burutzeko behar diren agiri guztiak gauzatzeko.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaltu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Asenjo in

Adierazi du gai hau aurreko legealditik pendiente zegoela, eta bere poza agertu du Udala arazo hau akordio bitartez soluzionatzeko gai izan delako, eta udalarentzat onuragarria den akordioa lortu delako.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1,
Kontrako botoak: 0
Abstentzioa: 5 (EAJ/PNV 5)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- “Ostalaritza eta aisialdi” jarduerak kokatzeko Ordenantzaren aldaketa.

Proposamena

Hirigintza eta Lurzoruaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 99. artikuluan xedatutakoaren arabera, hirigintzako eta eraikuntzako udal-ordenantzak edo plan orokorreko dokumentazioan dauden ordenantzen aldaketak udalak egingo ditu, eta toki-erregimenari buruzko araudian udal-ordenantzatarako ezartzen den prozeduraren arabera izapidetu eta onartuko dira.

Udal ordenantzak Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, honela izapidetzen dira:

- Hasierako onespena Udal Osoko Bilkurak eman beharko dio (gehiengo arruntaz).
- Jendurrean 30 lanegunez jarri beharko da, eta iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-oholean argitaratu beharko da, interesatuek erreklamazioa aurkeztu ahal izateko.
- Jendurrean ez badago erreklamaziorik, behin-betiko izaeraz onartuta geratuko da beste inongo erabakirik hartu beharrik gabe.

Proposamen hau 2012ko..... Obra delegaritzan oniritzia eman zitzaiola.

Espedienteari buruz, Udal aparejadoreak 2012ko maiatzak 14ean eginiko txostena.

Hori horrela izanik, 2012ko uztailaren 11ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzodeak honako hau proposatu du:

AKORDIO PROIEKTUA:

1.- “Ostalaritza eta aisialdi” jarduerak kokatzeko Ordenantzaren aldaketa espedientea hasierako izaeraz onartzea.

2.- Espediente jendurrean jartzea 30 lanegunez azken argitalpenaren egunetik kontatzen hasita; iragarkia iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Asenjo in

Adierazi du Ordenantza berri hau onuragarria izango dela, bai tabernari eta baita bizilagunei begira, eta jarraian aldaketen atal nagusienak azaldu ditu.

Alkate in

Adierazi du Ordenantza honetan jasotzen direla Iñakik 2012ko uztailaren 11 Osoko Bilkurarako Gaiien Batzordean egin zituen bi proposamenak: jardueren sailkapena arautegi zaharrekoak mantentzea, zeren eta oraindik ez da ezagutzen arautegi berriaren ondorioak, eta "saturatutako gunen" dagokienez Andra Mari eta Etxezarreta kaleei mugatzea. Bukatu du esanez arautegi berriaren ondorioak ezagutzen direnean (aipatu du aparejadore kolegioan pendiente dagoela bilera bat gai hau tratatzeko), aztertuko dela Ordenantza berri hau nola egokitu, eta abar.

Santamaria in

Idazkariari galdetu dio ea posible den Udal Ordenantzaren bitartez Arau Subsidiarioetan jasotako Ordenantza aldatzea.

Idazkari in

Erantzun dio, posible dela Hirigintza eta Lurzoruaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 99. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta diktamenean jasotako prozedura jarraitu behar dela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Beraz Alkateak aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 7. puntuaren berri eman du:

7.- Udaleko lanpostuen eginkizunei buruz 2011ko maiatzaren 16ko Udal Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren aurka P.A. arkitektoak aurkeztutako berraztertzeo errekurtsua.

Proposamena

2012ko uztailaren 2an Lanpostu Balorazioa Batzordeak egindako bileraren berri ematen da, 2011ko maiatzaren 16an Osoko Bilkurak onartu zuen Lanpostuen Balorazioaren aurka aurkeztutako errekurtsuak aztertzeko, besteak beste Udal arkitektoa den M^a Pilar Amenabar Zabalak 2012ko martxoaren 5ean aurkeztu zuena.

Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, administrazio-isiltasuna arautzen duten 43. artikulua, 117. artikuluekin batera.

2012ko uztailaren 11ko Osoko bilkurako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako hau onartzeko proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA:

*** Udal Arkitektoak 2012ko martxoaren 5ean aurkeztutako errekurtsua onartzea, eta berak aurkeztutako erredakzioa aintzat hartzea.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn

Balorazio Batzordeak 2012ko uztailaren 2an eginiko bileraren berri eman du, eta adierazi du onartzea proposatzen den errekurtsua "erredakzio" kontu bat dela bakarrik.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Beraz Alkateak aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

8.-San Juan guneko Zatikako Planaren aldaketa espedientearen hasierako onarpena.

Proposamena

Honako hau ikusita:

“H.I.E. 22-San Joan” guneko Zatikako Plana aldatzeko aurkeztutako proiektuak ezaugarri hauek dituela:

- Proiektua: “H.I.E.22-San Joan guneko Zatikako Plana aldatzeko proiektua.
- Sustatzailea: Ordizia Lantzen S.A. eta beste batzuk.
- Arkitektoa: Fernando Carazo Amundarain.

Hirigintza eta Lurzoruaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 95. artikuluan xedatutakoaren arabera, honela izapidetu behar dela espediente hau:

- Hasierako onespina eman, eta espedientea jendaurrean jarri beharko da, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintzian hedadura gehien duen egunkari batean argitaratuz, 20 lanegunez, azken argitalpenaren egunetik aurrera, interesatuek erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.
- Jendurreko epean alegazioak aurkeztuko balira, hauek ikusi eta erantzun egin beharko dira, eta behin-betiko onarpena eman beharko zaio espedienteari.

Gai hau 2012ko uztailaren 16an egingo den Udal Planeamenduko Aholku Batzordean ikusiko dela.

Espedienteari buruz, Udal arkitektoa den J.M.S.I. jaunak, 2012ko uztailaren 9ko eta uztailaren 17ko datan eginiko aldeko txostena baldintza batzuekin.

Apirilaren 2ko 7/1985 legeko 22. artikulua dioenari jarraiki, Udal Osoko Bilkurari eta gehiengo arruntaz dagokiola espedientea hasierako izaeraz onartzea.

Hori horrela izanik, 2012ko uztailaren 11ko Osoko Bilkurarako Gaiaren Batzordeak proposatutakoaren arabera, honako hau da proposatzen dena:

AKORDIO PROIEKTUA:

1.- “H.I.E. 22-San Joan guneko Zatikako Plana aldatzeko espedientea hasierako izaeraz onartzea. Udal arkitektoaren txostenean jasotako baldintza guztiak bete beharko dira.

2.- Espediente jendaurrean jartzea 20 lanegunez azken argitalpenaren egunetik kontatzen hasita; iragarkia iragarki-oholean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintzian hedadura gehien duen egunkari batean argitaratu beharko da.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate in

Espedientearen berri eman du, eta azpimarratu du 2012ko uztailaren 16an egin zen Udal Planeamenduko Aholku Batzordean ikusi zela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Beraz Alkateak aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

9.-H.E.A.-GARBIGUNE: Hiri Antolaketako Arauen Aldaketarako aurrerapena.

Proposamena

Honako hau ikusita:

H.E.A.-GARBIGUNE: Hiri Antolaketako Arauen Aldaketaren Aurrerapenari buruzko espediente.

Hirigintza eta Lurzoruaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 90.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, honela izapidetu behar dela espediente hau:

- Aurrerapen dokumentua egindakoan, Udalak jendaurrean jarriko du bi hilabetez gutxienez, epe horretan iradokizunak eta alternatibak aurkeztu ahal izateko. Jendaurrean jartzen denean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintzian hedadura gehien duen egunkari edo egunkarietan argitaratu beharko da, espediente hau baita udal mugakideetara bidali beharko da ezagutu dezaten.

Gai hau 2012ko otsailaren 15eko eta uztailaren 16ko den Udal Planeamenduko Aholku Batzordeko bileratan aztertu zela.

Espedienteari buruz, Udal arkitektoa den J.M.S.I. jaunak, 2012ko uztailaren 13ko datan eginiko aldeko txostena baldintza batzuekin.

Apirilaren 2ko 7/1985 legeko 22. artikulua dionari jarraiki, Udal Osoko Bilkurari eta gehiengo arruntaz dagokiola tramite hau irekitzeko dagokion erabakia hartzea.

Hori horrela izanik, honako hau da

AKORDIO PROIEKTUA:

1.- “ H.E.A,-GARBIGUNE” Hiri Antolaketako Arauen Aldaketarako Aurrerapen espedientea tramitatzen hasteko akordioa onartzea.

2.- Espediente jendurrean jartzea bi hilabetez gutxienez; iragarkia iragarki-oholean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintzian hedadura gehien duen egunkari edo egunkarietan argitaratu beharko da, eta espedientea baita udal mugakideetara bidali beharko da ezagutu dezaten.

3.- Jendurreko epealdia betetzearekin batera, Ingurugiro Eraginaren Ebaluazio arautegian xedatutako tramiteak bete beharko dira.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jna

Espedientearen berri eman du eta gogoraratu du espediente hau Udal Planeamenduko Aholku Batzordean ikusita dagoela (2012ko otsailaren 15eko eta 2012ko uztailaren 16ko bileretan). Jarraian adierazi du zuzenketa hauek egin behar izan direla proiektuan: lehen hiri-lurzoru sailkapenara pasatzen bazen ere, azkenik urbanizagarri sailkapenara pasatzen da, eta kalifikazioari dagokionez lehen ekipamendu kalifikazioa bazuen ere, azkenik azpiegitura kalifikazioa pasatzen da.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak urgentziz aurkeztutako bi puntu hauen berri eman du:

10.- Algamar, Goierriko Sahararen Lagunak Elkarteari diru-larguntza emateko proposamena.

11.- Ordiziar bateri Afrikara kooperante gisa joateko dirulaguntza emateko proposamena.

Gaiak aztertu aurretik, hauen presazko izaeraren bozketan jarri da.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Erabatekoa.

Presazko izaeraren Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamenen presazko izaera onartutzat eman du.

Jarraian, Alkateak puntuaren berri eman du:

10.- Algamar, Goierriko Sahararen Lagunak Elkarteari diru-larguntza emateko proposamena.

Proposamena

- Honako hau ikusita:

Iparra-Hegoa kooperazio proiektu desberdinetan formula baita ugarien bidez parte hartzen duten elkarte eta pertsonen laguntzeko Ordiziako Udalak duen borondatea,

AKORDIO PROIEKTUA

Dirulaguntza ematea Algamar, Goierriko Sahararen lagunak elkarteari, 'Oporrak bakean' programan parte hartzeagatik, Saharako bi haur Ordiziako bi familien etxeetan hartuz 2012ko udan.

Laguntza 1.350 €koa da, 675 € ume bakoitzeko eta hartutako umeen bidaiaren gastuei dagokio.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez dira izan.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak urgentziz aurkeztutako hurrengo puntuaren berri eman du:

11.- Ordiziar bateri Afrikara kooperante gisa joateko dirulaguntza emateko proposamena.

Proposamena

Ipar-Hegoa kooperazio programetan parte hartzeagatik Ordiziako gazteei ematen zaizkien dirulaguntzak arautzen dituen araudia jarraituz eta 2012 urteko ekitaldiari dagokion deialdia egin ondoren,

Honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

EÑAUT AGIRRE ITURRIOZ (Ordizia, 1990) ordiziar gazteari 1.036,03 euroko dirulaguntza ematea onartzea AFRIKA kooperante gisa joateko.

EÑAUT MUJIKA umezurtzak hartzen dituen eskola batean arituko da lanean, ondorengo lanak burutuz:

- Irakasleei eskolak ematen lagundu, baita irakasgaien plangintzan aholkularitza ere.
- Eskolako botikina berritu eta osatu, ingelesezko instrukzioak gehituz.
- Eskolako baratzan edo sukaldean lagundu, beharren arabera. Baita behar izanez gero egurrak biltzen edo erosketak egiten ere.
- Haurrei osasun hezkuntza oinarrizkoa irakatsi.
- Eskolako orduen arteko atsedendietan haurrekin jolastu edo ekintzak antolatu.

Proiektua bultzatuz honako erakunde hauek egongo dira: chazonafrica.org.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Iturrioz in

Dirulaguntza honi dagokionez Imanol Iturrioz zinegotziak, dirulaguntzaren onuraduna bere lehengusu baten semea denez, idazkariari galdetzen dio ea erabakian parte ez hartzeko arrazoiren bat ematen den.

Idazkari in

Idazkariak erantzun dio ezetz honela arrazoituta: Herri Administrazioen eta Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992ko 76. artikuluan xedatzen denaren arabera, parte ez hartzeko arrazoa da laugarren maila arteko odol-ahaidetasuna izatea, eta kasu honetan ez da hori ematen, hala ere parte ez hartzeko arrazoi bat den kasuan ere, parte hartzen bada, onartutako egintza baliogabea bakarrik izango litzateke botua erabakigarria izango balitz.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak hurrengo puntuaren berri eman du:

12.- Eskaerak eta galderak

Ez dago.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, idazkariak egiaztatzen dut.